



# TXAHAL AZPIZUN

## “ERREA”

### OSAGAIK

(4 pertsonarentzat)  
4 medailoi txahal-azpizun (150 gr  
bakoitzak)  
2 zorro txipiroi-tinta  
100 gr errefau txiki  
10 gr gurin  
Perrexil xehatua

### ELABORAZIOA

Pintzel baten laguntzarekin, azpizun-medailoiak txipiroi-tintaz margotuko ditugu eta 5 minutuz sartuko ditugu labean, 50 graduko tenperaturan, tinta lehor dadin.

Gatz eta piperbeltz puntuan jarriko ditugu. Zartaginean medailoiak markatuko ditugu. Bitartean, beste zartagin batean gurina pixka bat gorrituko dugu eta errefau txiki zatituak gehituko ditugu. Pixka bat salteatuko ditugu, eta plater baten alde batean jarriko ditugu.

Azpizuna jartzen amaituko dugu.



PREZIOA  
HANDIA



DENBORA  
30'



ZAILTASUNA  
6/10



OSASUNGARRIA  
8/10